

Urko Lopez-ek doktore tesia irakurri du

2008/09/18

Irailaren 12an, Urko Lopez, Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateko irakasleak, bere doktore tesia irakurri zuen Sarrikon, Sobresaliente Cum Laude kalifikazioa jasoz.

Tesia, euskaraz garatu da eta ondoko gaiaren inguruan: "Teknologia eta Berrikuntza Euskal Autonomia Erkidegoko Berrikuntza Sistemaren baitan: Analisi Enpirikoa Sektore Aeronautikoan".

Tesi honetan Euskal Autonomia Erkidegoko Berrikuntza-Sistemaren nolabaiteko argazkia atera nahi izan da, bere bertute eta gabeziak erakutsiz. Hala ere, Euskal Autonomi Erkidegoko Berrikuntza-Sistema zabala da eta sektoreen arabera bere pisua, eragina eta garrantzia desberdina izan daiteke. Honela, Berrikuntza-Sistema Sektorialen ikuspuntua landuz, aeronautikaren ezaugarri orokorrak eta sektore honen berrikuntza-sisteman dauden eragileak eta hauen arteko erlazioak aztertzen dira.

